

**ARABAKO TXIRRINDULARITZA
FEDERAZIOAREN DIZIPLINAZKO
ARAUTEGIA**

AURKIBIDEA

I. TITULUA	DIZIPLINAREN AHALMENARI ETA ZIGORREN ETA ARAU-HAUSTEEI BURUZ	
	I. KAPITULUA	XEDAPEN OROKORRAK
	II. KAPITULUA	ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK
		I. ATALA KIROLARIEK, TEKNIKARIEK, ORDEZKARIEK ETA ZUZENDARIEK EGINDAKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK
		II. ATALA KIROL ARAU OROKORRAK HAUSTEA ETA ZIGORRAK
	III. KAPITULUA	ERANTZUKIZUNAREN DESAGERTZEA
	IV. KAPITULUA	ERANTZUKIZUNAREN SALBUESLEAK
	V. KAPITULUA	KIROL DIZIPLINAREN ANTOLAKETA
		I. ATALA DIZIPLINA EPAILE BAKAR
		II. ATALA APELAZIO-BATZORDEA
II. TITULUA	DIZIPLINAKO PROZEDUREI BURUZ	
	I. KAPITULUA	ZIGOR PROZEDURAREN OINARRI OROKORRAK
	II. KAPITULUA	ZIGOR PROZEDURA OROKORRARI BURUZ
	III. KAPITULUA	EZ OHIZKO EDO PRESAZKO PROZEDURA
	IV. KAPITULUA	JAKINARAZPEN ETA ERREKURTSOAK

I. TITULUA

DIZIPLINAREN AHALMENARI ETA ZIGOR ETA ARAU-HAUSTEEI BURUZ

I. Kapituluua: Xedapen Orokorrak

1. Artikulua:

Arabako Txirrindularitza Federazioaren diziplinaren ahalmenpean daude egituran parte hartzen duten pertsonak; lurraldeko federazioen egituran parte hartzen duten pertsonak; lurralde federazioak, klub eta elkarteak; eta federazioan zuzenean edo zeharka partaide diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

2. Artikulua:

Diziplinaren ahalmenak eragina izango du jokoan eta lehiaketetan egindako arau-hausteetan, eta txirrindularitza arauen aurkako kirol jokaera okerretan; arauok EAEko Kirol Legean, diziplinako ahalmena arautzen duten erregelamenduzko xedapen publikoetan, eta Arabako Txirrindularitza Federazioaren Estatutuetan eta araudi honetan zehaztuta daude.

3. Artikulua:

Diziplinaren ahalmena da Federazioak ikertzeko eta, dagokionean, bere diziplinapean dauden pertsonak zigortzeko duen ahalmena.

Ez dira egongo diziplinaren ahalmenpean probak edo lehiaketak zuzentzeko ahalmena Arau Teknikoak aplikatzeari dagokionez, hau arbitroei eta epaileei baitagokie, ez eta horien berraztertzea ere, Lehiaketa-Batzordeari baitagokio.

II. Kapituluua: Arau-hausteak eta Zigorrak

4. Artikulua:

Arau hausteak bi motakoak izan daitezke:

- 1.- Jokoaren edo lehiaketaren arau-hausteak edo zaurtzapenak.
- 2.- Kirol arau orokorren arau-hausteak edo zaurtzapenak.

5. Artikulua:

1.- Zigorrek izaera hezitzailea, prebentiboa eta zentzatzzailea dute, eta kirolaren interesa eta interes orokorra defendatzeko xedearekin ezarriko dira. Zigorrak ezartzerakoan arau-hauslearen asmoa hartuko da kontuan batez ere, eta egitearen edo ez-egitearen emaitza.

2.- Dagokien diziplinako espedientearen bidez ezarritako zigor guztiak, jokoko arauak zein kirol arau orokorrak hausteagatik, berehala betearaziko dira, errekurso egokiak ezagutu behar dituzten federazio, administrazio eta jurisdikzio organoek zuhurtasunezko zigorrak ezartzeko duten ahalmenari kalterik egin gabe.

3.- Diru-isunaren zigorra kirolariei, teknikariei edo epaileei beren jarduerarengatik ordainsariak edo konpentsazioak jasotzen dituztenean bakarrik jarriko zaizkie eta pertsona juridikoei.

I. Atala: Jokoko Arauak haustea eta zigorrak

6. Artikulua:

Joko- edo lehiaketa-arauen aurkako arau-haustek Arabako Txirrindularitza Federazioak antolatutako jokoaren edo lehiaketaren garapena galarazten edo oztopatzen duten egiteak edo ez-egiteak dira.

7. Artikulua:

Aipatu arau-haustek Kirolariek, Teknikariek, Delegatuek eta Zuzendariak egin ditzakete; era berean, Arbitro-Taldeko Kideek edo Epaileek eta Klubek egin ditzakete.

Lasterkariak egindako arau-haustek.

8. Artikulua:

Kirol arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste oso larriak honakoak izango dira:

- a) Erasoak epaile, tekniko, buruzagi edo beste kirol agintari bati zuzenduak, bai eta ikusle edo jokoarekin zerikusia duen beste edonori eragindakoa ere, baldin eta aipatu eraso larria edo kaltegarria bada.
- b) Lehiaketa bat oztopatu edo bertan behera uztera eramaten duten ekintzak.

2.- Arau-hauste larriak:

Arau hauste larriak honakoak izango dira:

- a) 1.a) atalean aipatutako pertsonen zuzendutako erasoak, beti ere, ekintza, larritasunari dagokionez, arau-hauste oso larria ez bada.
- b) Arbitro-taldeko kideren bat, zuzendaria, buruzagia, beste taldeko kide bat, entrenatzailea, ikuslea edo, oro har, edozein pertsona mehatxatzea, hertsatzea edo horien kontra ekintza iraingarriak burutzea.

3.- Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arinak honakoak izango dira:

a) Ekipamendu-Jantziei dagokienez

- 1.- Probak irauten duen bitartean, edo une batez, derrigorrezko kaskoa ez erabiltzea
- 2.- Bizkarreko zenbakia edo koadroko plaka ez eramatea edo ikusgai edo erregelamenduz ez jartzea.
- 3.- Bizkarreko zenbakia ez kentzea lasterketa bertan behera utzi ondoren.
- 4.- Lasterketan jantziak edo materialak behar ez bezala jasotzea edo ematea.
- 5.- Beste talde bateko lasterkari bati behar ez bezalako laguntza materiala ematea.
- 6.- Behar ez bezalako errelebuak honako hauen artean:
 - a) Talde desberdinetako lasterkariak
 - b) Talde bereko lasterkariak
 - c) Lasterketaren azken kilometroan arau-hausteren bat egiten bada

b) Esprinta

- 1.- Egindako Esprintaren ondorioz hautatutako korridorea desbideratzea, lehiakideak arriskuan jarritz.
- 2.- Behar ez bezalako esprinta.

c) Bultzadak

- 1.- Ibilgailu, moto edo lasterkari batek bultzatzea.
- 2.- Kideen artean bultzatzea.
- 3.- Beste talde bateko lasterkari bat bultzatzea.
- 4.- Ikusleak emandako bultzada.
- 5.- Lasterkari bat nahita oztopatzea.
- 6.- Maillotetik heltzea.

d) Lasterketaren garapena

- 1.- Baimendu gabeko elkarren arteko laguntza ematea zirkuitu bateko helmugara heltzean.
- 2.- Ibilbidea nahita desbideratzea.
- 3.- Sailkatzen saiatzea ibilbide osoa bizikletaz egin gabe.
- 4.- Lasterketara itzultzea ibilbidearen zati bat kotxez edo motoz egin ostean.
- 5.- Talde desberdinetako kirolarien artean iruzur egitea edo egiten saiatzea edo akordio bat egitea.
- 6.- Honakoetara heltzen den lasterkaria:
 - a) Bere taldeko ibilgailu bat
 - b) Beste edozein motoredun ibilgailu
 - c) Lizentzia duen beste norbait
- 7.- Ibilgailu baten atzealdean babestea edo honen lorratza jarraitzea
 - a) Luzez
 - b) Une batez
- 8.- Baimendu gabeko hornidura:
 - a) Azken 20 Km-etan
 - b) Azken 10 Km-etan
 - c) Behar ez bezalako hornidura
- 9.- Ibilgailu ofizialei traba egitea
- 10.- Probaren zuzendaritzaren edo epaile arbitroen arauak ez errespetatzea
- 11.- Proban zehar janaria, edariak eta beste edozein merkantzia lapurtzea
- 12.- Bizikletan edozein objektu ausarkeriaz eramatea edo jaurtitzea

13.- Helmuga berriro zeharkatzea lasterketaren norabidean bizkarreko zenbakia eramanez

14.- Protokolozko ekitaldietan parterik ez hartzea

15.- Telefono mugikor edo transmisio tresna bat erabiltzea

e) Banakako eta taldekako erloju kontrako probak

1.- Lasterkarietzat aurreikusitako distantziak eta bereizketak ez errespetatzea

2.- Lorratza jarraitzea

3.- Ibilbideari eta beroketa-eremuari dagozkion xedapenen arau-haustek

4.- Talde bereko lasterkarien artean bultza egitea

9. Artikulua:

Zigorrak.

Araudi honen arau-hausteen harira, honako zigorrak ezarri ahal izango dira:

1.- Arau-hauste oso larriei honako zigorrak dagozkie:

- a) 2 urtetik 4 urtera arteko gaitasungabetzea
- b) 2 urtetik 4 urtera arteko gabetzea
- c) Amonestazio publikoa
- d) Ohartarazpena.
- e) 3.001,00 € eta 9.000,00 € arteko isuna

2.- Arau-hauste larriei honako zigorrak dagozkie:

- a) Hilabete 1etik 2 hilabetera arteko gaitasungabetzea
- b) Hilabete 1etik 2 hilabetera arteko gabetzea
- c) Amonestazio publikoa
- d) Ohartarazpena.
- e) 301,00 € eta 3.000,00 € arteko isuna

3.- Arau-hauste arinei honako zigorrak dagozkie:

- a) Hilabete baterako gaitasungabetzea
- b) Hilabete baterako gabetzea
- c) Amonestazio publikoa
- d) Ohartarazpena.
- e) 1,00 € eta 300,00 € arteko isuna

Klubak eta/ala bere kideek egindako arau-hausteak eta Zigorrak

10. Artikulua:

Kirol arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste oso larriak honakoak izango dira:

- a) Klub bat proba batera ez azaltzea edo aipatu proban parte hartzeari uko egitea, bi kasuetan arrazoitu gabe.
- b) Klubeko talde batek proba bertan behera uztea behin hori hasi denean, arrazoitu gabe, proba guztiz burutzea galaraziz.

2.- Arau-hauste larriak:

Arau-hauste larriak honakoak izango dira:

- a) Probaren ibilbideari, baldintzei eta beharrezkoak diren elementu teknikoari dagozkien xedapenak ez betetzea, baldin eta proba bertan behera uztea edo ez garatzea eragiten bada edo pertsonen osotasun fisikoa arriskuan jartzen bada zabarkeriagatik.
- b) Publikoaren istiluak orokorrean eta objektuak botatzea bereziki, probaren garapena era larrian edo behin eta berriro oztopatzen dutenean, proba aldi baterako bertan behera uzten denean edo bildutakoen osotasun fisikoa arriskuan jartzen dutenean.

3.- Arau-hauste arinak:

1.- Lasterkariari behar ez bezalako laguntza mekanikoa ematea

2.- Jarraitzaile batek ibilgailu batetik gorputz erdia edo materiala ateratzea uztea

3.- Gurrpilak ez diren laguntzarako material mekanikoa daraman moto gidaria

4.- Baimendu gabeko hornidura:

- a) Azken 20 Km-etan
- b) Azken 10 Km-etan
- c) Behar ez bezalako hornidura

5.- Motoredun ibilgailuen zirkulazioa arautzen duten arauzko xedapenak ez betetzea

6.- Epaile arbitro bati talde bateko ibilgailura igotzea galaraztea

7.- Lasterketan jantziak edo materialak behar ez bezala jasotzea edo ematea

- 8.- Taldeko ibilgailu bat nahita oztopatzea
- 9.- Kirolaria ibilgailuan edo motoan eramatea
- 10.- Kirolariari edozein motoredun ibilgailutara heltzen uztea
- 11.- Lasterkaria babestea:
 - a) Une batez ibilgailuaren atzetik jarriz edo bere lorratza jarraitzen utziz
 - b) Luzez ibilgailuaren atzetik jarriz edo bere lorratza jarraitzen utziz
- 12.- Ibilgailu ofizial bat oztopatzea
- 13.- Probaren zuzendaritzaren edo epaile arbitroen arauak ez errespetatzea
- 14.- Banakako edo taldekako erloju kontrako lasterketetan:
 - a) Ibilbideari eta beroketa-eremuari dagozkion xedapenen arau-haustekak.
 - b) Auto jarraitzaileak 10 metroko distantzia ez errespetatzea

11. Artikulua:

Zigorrak.

Araudi honen arau-hausteen harira, honako zigorrak ezarri ahalko dira:

1.- Arau-hauste oso larriei honako zigorrak dagozkie:

- a) Lehiaketatik kanporatzea.
- b) Sailkapenean puntuak kentzea.
- c) 3.001,00€ eta 9.000,00 € arteko isuna
- d) Lizentzia aldi baterako, batetik lau urtera arte edo behin betiko galtzea.

2.- Arau-hauste larriei honako zigorrak dagozkie:

- a) Lehiaketatik kanporatzea.
- b) Sailkapenean puntuak kentzea.
- c) 301,00€ eta 3.000,00 € arteko isuna
- d) Lizentzia hiru hilabetetik urtebetera galtzea.

3.- Arau-hauste arinei honako zigorrak dagozkie:

- a) Lehiaketatik kanporatzea.
- b) Sailkapenean puntuak kentzea.
- a) 1,00€ eta 300,00 € arteko isuna
- b) Lizentzia hiru hilabetera arte galtzea

Arbitro-Taldeko kideek egindako arau-hausteak eta zigorrak.

12. Artikulua:

Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste oso larriak honakoak izango dira:

- a) Talderen batekiko alderdikeria frogatzen bada.
- b) Lasterketaren akta nahita idaztea, aldatzea edo manipulatztea, bertan jasotako oharren proban gertatutakoarekin bat etor ez daitezen, edo informazio maltzurra edo faltsua.
- c) Lurralde Batzordeak edo federazioko arduradun batek deitutako probaren batera ez azaltzea, arrazoitutako ezinbesteko kausa batengatik izan ezean.
- d) Proba batean kanpora joatea, baimenik gabe edo arrazoitu gabe.
- e) Dopingaren aurkako kontrolaren ikuskaritza araubidea bete gabe egitea, edo kontrola ezdeusa izatea ikuskatzailearen zabarkeria dela eta.
- f) Epaille arbitroaren funtzioak burutzea, horretarako lizentziarik izan gabe.
- g) Lasterketaren akta ez betetzea edo ez igortzea.

2.- Arau-hauste larriak:

Arau-hauste larriak honakoak izango dira:

- a) Proba batean bere funtzioak ez betetzea edo izendapen bat saihesteko arrazoi faltsuak ematea.
- b) Proba batera berandu heltzea eta ez arrazoitzea.
- c) Proba bat bertan behera uztea, horretarako Araudiak aurreikusitako baldintzak eman gabe.
- d) Senide zuzenek parte hartzen duten probetan arbitro-lanak egitea.
- e) Beharrezko lizentzia ez duten pertsonen lehiaketa batean parte hartzen uztea.
- f) Proba bati hasiera ematea ordena publikoaren zerbitzua edo arauzko zerbitzu medikurik gabe.
- g) Erregelamenduz ezarritako erreklamazio bat ez onartzea.
- h) Kirol zuzendariekin eta elkartarekin proben aurretik egindako bileretara ez joatea.
- i) Lasterketan duen karguari dagozkion betebeharrak ez betetzea, behar bezala arrazoitu gabe.
- j) Lasterketa batetik alde egitea, hau amaitu ostean, erreklamazioak egiteko epea amaitu baino lehen.
- k) Arbitro-lanei, dietei edo joan-etorriei probarako izendatutako Batzordeak baimendutakoak baino tarifa handiagoak aplikatzea.
- l) Parte hartzen duen probarako izendatu duen Batzordeak ezarritako uniforme ofiziala ez erabiltzea.

3.- Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arinak honakoak izango dira:

- a) Edozein pertsonari zuzendutako irain eta neurrigabeko protestak.
- b) Parte hartzen duten taldeetako kideen kiroltasunik gabeko portaeraren aurrean pasibotasuna.
- c) Proba baterako inskripzioa ez egiaztatzea edo gaizki egiaztatzea.
- d) Probara deitu duten ordua baino beranduago heltzea, edo izendatu duen Batzordeak ezarritako ordua baino beranduago heltzea.
- e) Probari aldez aurretik ezarritako orduan hasiera ez ematea, arrazoitu gabe.
- f) Zuzendariei, ezinbesteko kausa dela eta, proba baten ibilbidean edo araudian egindako aldaketak ez jakinaraztea.
- g) Proba baten akta proba amaitu eta lau egun naturaleko epean ez igortzea.
- h) Proba batean arbitro-lanak egitea Arabako Batzordeak izendatu gabe
- i) Arabako Batzordeak eskatzen dionean, eguneko sailkapenak edo sailkapen orokorrak ez aurreratzea.
- j) Bere Batzordeak deitutako ikastaro edo bileretara ez joatea
- k) Bere Batzordeak onartutako portzentajeak ez ordaintzea

13. Artikulua:

Zigorrak.

Araudi honen arau-hausteen harira, honako zigorrak ezarri ahalko dira:

1.- Arau-hauste oso larriei honako zigorrak dagozkie:

- a) Gaitasungabetzea.
- b) Gabetzea.
- c) Amonestazio publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 3001,00€ eta 9.000,00 € arteko isuna; edo arbitro-lanak egiteko eskubideak eta gastuak galtzea.

2.- Arau-hauste larriei honako zigorrak dagozkie:

- a) Gaitasungabetzea.
- b) Gabetzea.
- c) Amonestazio publikoa.
- d) Ohartarazpena
- e) 301,00€ eta 3.000,00 € arteko isuna edo arbitro-lanak egiteko eskubideak eta gastuak galtzea

3.- Arau-hauste arinei honako zigorrak dagozkie:

- a) Gaitasungabetzea.
- b) Gabetzea.
- c) Amonestazio publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 1,00 € eta 300,00€ arteko isuna edo arbitro-lanak egiteko eskubideak eta gastuak galtzea.

II. Atala: Kirol Arau Orokorrak haustea eta Zigorrek

14. Artikulua:

Kirol arau orokorren arau-haustek izango dira aurreko atalean jasota ez dauden egiteak edo ez-egiteak, eta EAEko Kirol Legean, diziplinaren ahalmena arautzen duten arauzko xedapen publikoetan, Arabako Txirrindularitza Federazioko Estatutuetan eta Araudi honetan xedatutakoaren kalterako direnak.

15. Artikulua:

Arau-haustek oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste oso larriak honakoak izango dira:

- a) Laguntzak eta diru-laguntzak oinarrietan eta emateko erabakietan xedatutako helburu desberdinetarako erabiltzea.
- b) Laguntzak eta diru-laguntzak emateko beharrezkoak diren datu errealak eta dokumentuak aldatzea.
- c) Eskuduntzen edo eskumenen usurpazio ez-legitimoa.
- d) Diziplina edo hauteskunde organoetako kideek estatutuetako eta arauzko betebeharrak ez betetzea.
- e) Segurtasun neurriak eta arrisku-estaldurak betetzen ez dituzten kirol-jarduerak antolatzea, aipatu kirol-jarduerak hirugarrenei arriskuak sortzen dizkienean.
- f) Estatutuetako, arauzko eta Arabako Txirrindularitza Federazioaren akordioetako arauak behin eta berriro ez betetzea.
- g) Eraso fisikoak, mehatxuak eta gogorkeria epaile, kirolari, teknikari, kirol agintari eta probetan edo lehiaketetan parte hartzen dutenei, ofizialak izan zein ez.
- h) Agintekeria.
- i) Lehiaketa bat oztopatu edo bertan behera uztera eramaten duten protesta, larderia edo gogorkeria kolektibo edo gatazkatsiak.
- j) Kirolariek, teknikariek, epaileek eta zuzendariek egindako deklarazio publikoak eta bestelako ekintzak, baldin eta indarkeria bultzatzen badute.

- k) Kirol-jardueraren garapenerako esleitutako fondo publikoak nahita gaizki erabiltzea.
- l) Debekatutako substantzien sustapena, zirikada eta kontsumoa edo debekatutako metodoak erabiltzea eta horien kontrola galarazten duten egiteak edo ez-egiteak. Jokoaren edo lehiaketaren emaitza alde aurretik determinatzeko joera duten egiteak edo ez egiteak, ofizialak izan zein ez.
- m) Arau-hauste oso larriengatik edo larriengatik ezarritako zigorrak haustea.
- n) Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.
- o) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakiak ez betetzea.
- p) Kirol-modalitatearen garapenari eta praktikari eraso egiten dion edozein jokaera.
- q) Kirol materiala edo ekipamendua manipulatzeko edo aldatzeko, zuzenean edo beste pertsona baten bitartekaritzaren bidez, baldin eta proba edo lehiaketaren segurtasuna aldatu badezake edo pertsonen osotasun fisikoa arriskuan jartzen bada.

2.- Arau-hauste larriak:

Arau-hauste larriak honakoak izango dira:

- a) Falta arinengatik jarritako zigorrak haustea.
 - b) Diziplina edo hauteskunde organoetako kideek beren funtzioak ez betetzea edo uztea, baldin eta ez betetzea arau-hauste oso larria ez bada.
 - c) Arabako Txirrindularitza Federazioaren selekzioen deialdietara arazoitu gabe ez azaltzea.
 - d) Proba edo lehiaketaren garapen normala aldatzen duen protesta, bertan behera uztea eragin gabe.
 - e) Irainak eta ele txarrak epaileei, teknikariei, entrenatzaileei, kirol agintariei, jokalariei edo publikoari.
 - f) Epaile- edo teknikari-lanak beharrezkoa den titulazioa edo baimena izan gabe egitea.
- g) Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.
- g) Jarduerak, probak edo lehiaketak ofizialak direlako izendapenarekin antolatzea, horretarako beharrezkoa den baimena izan gabe.
 - h) Betetzen ari den funtzioarekin bateraezinak diren jarduera publikoak edo pribatuak burutzea.
 - i) Kirol lehiaketaren garapenak eskatzen duen duintasun edo begirunearen aurka egiten duen jokaera nabarmena edo publikoa.
 - j) Estatutuetoako edo arauzko edo Arabako Txirrindularitza Federazioaren akordioetako arauak ez betetzea
 - k) Segurtasun neurriak eta arrisku-estaldurak betetzen ez dituzten kirol-jarduerak antolatzea, aipatu kirol-jarduerak hirugarrenei arriskuak sortzen dizkienean.

- l) Atxikitzeko, luzatzeko, prestatzeko, konpentsatzeko edo antzeko eskubideak eskatzeko debekua ez betetzea, Autonomia Erkidegoan dauden erakundeen artean.
- m) Pertsona eta organo eskudunek ezarritako aginduak, akordioak eta jarraibideak ez betetzea.

3.- Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arinak honakoak izango dira:

- a) Epaille, tekniko, kirol agintariei, lasterkariei edo publikoari oharrak adieraztea, desegokitasun arinez.
- b) Euren lanean ari diren epaille eta kirol agintariek hartutako aginduen aurrean jarrera pasiboa hartzea.
- c) Diziplinako edo hauteskunde organoetako kideek beren funtzioak ez betetzea edo aldi baterako uztea, ez-betetze arina bada.
- d) Begirunerik eza federazio erakundeko pertsonen edo entitateen aurka.
- e) Oso larriak edo larriak ez diren kirol arauen aurkako jokaerak.

16. Artikulua:

Zigorrak.

Araudi honen arau-hausteen harira, honako zigorrak ezarri ahalko dira:

1.- Arau-hauste oso larriei honako zigorrak dagozkie:

- a) Urtebete baino gehiagoz eta bost urte gehienez lizentzia gabetzea.
- b) Lizentzia behin betiko kentzea.
- c) 6.000 € eta 60.000 € arteko isuna
- d) Urtebete baino gehiagoz eta bost urte gehienez kargu eta funtzioak burutzeko gaitasuna baliogabetzea.
- h) Lehiaketatik behin betiko kanporatzea
- i) Lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.

2.- Arau-hauste larriei honako zigorrak dagozkie:

- a) Hilabete bat baino gehiagoz eta urtebetez gehienez lizentzia gabetzea.

- b) 600 € eta 6.000 € arteko isuna.
- c) Urtebetez karguak eta funtzioak burutzeko gaitasuna baliogabetzea.
- f) Lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- g) Lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- j) Ohartarazpen pribatua.
- k) Ohartarazpen publikoa.

3.- Arau-hauste arinei honako zigorrak dagozkie:

- a) Hilabete batez lizentzia gabetzea
- b) 600 € arteko isuna.
- c) Lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- d) Lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- e) Ohartarazpen pribatua.
- f) Ohartarazpen publikoa.

III. Kapituluak: Erantzukizunaren desagertzea

17. Artikulua:

Erantzukizuna desagertzeko arrazoiak.

1.- Kirol diziplinaren erantzukizuna desagertuko da:

- a) Zigorra betetzean.
- b) Arau-haustea preskribatzean.
- c) Zigorrek preskribatzean.
- d) Heriotza kasuan.
- e) Zigorretako kirol entitatea iraungitzen denean.

f) Zigorra barkatzean.

2.- Federatu izateari uzteak, kasu batzuetan ezarrirako zigorretan eragina izan badezake ere, ez du diziplinazko erantzukizuna desagerraraziko.

18. Artikulua:

Arau-hausteen preskripzioa eta zigorrak.

1.- Arau-hausteeek hiru urte, urtebete edo hilabete baten buruan preskribatzen dute, arau-hauste oso larriak, larriak edo arinak diren arabera, eta preskribatze data arau-haustea egin deneko egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Arau-haustea jarraian egindako jarduera batean ematen bada, zenbatzen hasteko eguna jarduera amaitzen deneko eguna izango da edo arau-haustea iraungitzen deneko ekintza.

2.- Aurretiko izen-ematea zehapen-prozedura hasi dela jakinarazten den unean etengo da. Prozedura hau hilabete baino gehiagoz geldituta badago, aipatu prozedurari lotutako pertsona edo erakunde erantzuleari egotzi ezin dakioken arrazoi batengatik, dagokion epea berriro igaroko da.

3.- Zigorrek hiru urteren buruan preskribatuko dute oso larrien kasuan, urtebeteren buruan larrien kasuan eta hilabetera arinen buruan, eta preskribatze data hasiko da kontaktzen zigorra indarrean jartzen denetik edo zigorra betetzea urratzen denetik.

19. Artikulua:

Zigortuek aukera izango dute birgaitze eskaera egiteko, zigorra betetzetik hasita, honako epeetan:

- a) Sei hilabetera, zigorra arau-hauste arin batengatik bada.
- b) Bi urtera, zigorra arau-hauste larri batengatik bada.
- c) Lau urtera, zigorra arau-hauste oso larriagatik bada.

Birgaitzea zigorra ezarri zuen organo berari eskatuko zaio, eta epaitzeko eta zigorra ezartzeko erabili den prozesu bera erabiliko da, helegiteak barne.

IV. Kapituluak: Erantzukizunaren salbuesleak.

20. Artikulua:

Jokoaren arauen aurkako arau-hausteei aplikatu dakizkiekeen salbuesleak izango dira:

- a) Ustekabeko kasua.
- b) Ezinbesteko kasua.
- c) Bidezko defentsa eraso bat ekiditeko.

21. Artikulua:

Erantzukizunaren salbuesleak.

1.- Diziplinako erantzukizuna aldatzen duten baldintzak aringarriak eta larrigarriak izan daitezke.

2.- Kirol arau orokorren aurkako arau-hausteei aplika dakizkiekeen baldintza aringarriak izango dira:

- a) Arau-haustea gauzatu aurretik, horretarako bidea zabaldu denean
- b) Arau-hausleak damua aitortu badu zigortze prozesuaren berri jakin aurretik.
- c) Eragindako kaltea konpontzea, beti ere aurretiaz eta berez egiten bada.

3.- Jokoaren eta lehiaketaren arauen aurkako arau-hausteei aplika dakizkiekeen baldintza aringarriak izango dira, aurrekoez gain:

- a) Bere kirol historian zigorrik ez izatea
- b) Eragindakoa baino kalte txikiagoa egiteko asmoa.

4.- Kirol arau orokorren aurkako arau-hausteei aplika dakizkiekeen baldintza larrigarriak dira:

- a) Errepikatuz edo berreroriz aritu izana.
- b) Prezioa.

5.- Jokoaren eta lehiaketaren arauen aurkako arau-hausteei aplika dakizkiekeen baldintza larrigarriak dira, aurrekoez gain, honakoak:

- a) Arbitroaren erabakiak berehala ez obeditzea, jokaera hori arau-hauste moduan tipifikatzen ez bada.
- b) Egindako arau-haustea dela eta probaren garapena oztopatzea.
- c) Ikusle moduan, federazioko lizentzia izanik, edozein arau-hauste egitea, kirolaria, teknikaria, delegatua zein arbitro izan.

e) Errepikatzea. Errepikatzea gertatuko da arau-hausleak denboraldi berean zigorra jaso badu antzeko edo handiagoko zigorra duen beste arau-hausteagatik, edo gutxiagokoak diren hainbat arau-haustegatik.

6.- Zigor-organoek zuzena deritzoten zigor maila ezarriko dute, betiere kontuan hartuta gertakizunaren izaera, erantzulearen nortasuna eta egoeraren salbuesleak, aringarriak eta larrigarriak.

V. Kapituluua: Kirol Diziplinaren Antolaketa

22. Artikulua:

Arabako Txirrindularitza Federazioaren diziplinaren ahalmena Diziplina Epaileari dagokio.

I. Atala: Diziplina Epaile Bakarra

23. Artikulua:

Arabako Txirrindularitza Federazioaren Diziplina Batzordea Epaile Bakar batek osatuko du. Arabako Txirrindularitza Federazioaren Zuzendaritza-Batzordeak izendatuko du.

24. Artikulua:

Zuzendaritza-Batzordeko kideak ezin izango dira Diziplina Epaile izan

II. Atala: Apelazio-Batzordea

25. Artikulua:

Arabako Txirrindularitza Batzordeak izendatuko du Apelazio-Batzordea, bere diziplinazko araudiari jarraituz.

26. Artikulua:

Apelazio-Batzordearen eskumena da Arabako Txirrindularitza Federazioko Diziplina Epaile Bakarraren erabakien aurka jarritako errekurtsoen berri izatea.

Apelazio-Batzordeak hartutako erabakiak aurkatu ahal izango dira Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean.

II. TITULUA

DIZIPLINAKO PROZEDUREI BURUZ

I. Kapituluak: Zigor prozeduraren oinarri orokorrak

27. Artikulua:

Diziplinako prozedurak.

- 1.- Diziplina-erantzukizunak prozedura arrunta eta prozedura bereziaren bidez garbituko dira.
- 2.- Prozedura berezia, lehentasunaren eta laburpenaren printzipioetan oinarritua, jokoaren edo lehiaketaren arau-hausteei aplikatu dakioko.

28. Artikulua:

Diziplina- eta zigor-erantzukizunen aldiberekotasuna

- 1.- Diziplina Epaileak, ofizioz edo alderdi interesdunak eskatuta, Ministerio Fiskalari delitu zantzurik balego jakinaraziko dio. Kasu horretan, Epaileak prozedura bertan behera uzteko aginduko du, dagokion ebazpen judiziala egokitu arte.
- 2.-Alabaina, Epaileak beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartuko ditu.

29. Artikulua:

Diziplina- eta administrazio-erantzukizunen aldiberekotasuna

- 1.- Gertakari berak Kirolaren Legean eta bere garapenerako Araudi publikoetan araututako erantzukizun administratiboei eta araudi honetan aurreikusitako diziplinazko erantzukizunei bide emango balie, Arabako Txirrindularitza Federazioko Diziplina Epaileak, ofizioz edo alderdiak hala eskaturik, administrazio organo eskudunari jakinaraziko dio, hori guztia diziplinako prozeduraren izapideari kalterik egin gabe.
- 2.- Epaileak erantzukizun administratiboari soilik bide emango dioten gertakarien berri duenean administrazio organo eskudunei aurrekariak helaraziko dizkio.

30. Artikulua:

- 1.- Epaileak, espedientea irekitzen denean, beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu epaiaren eraginkortasuna babesteko edo konponbiderik gabeko kalte bat saihesteko.

Neurriok espedientea bideratzen den bitartean eta bere erabakia ematen den arte iraungo dute, eta interesdunei jakinaraziko zaizkie, erabakiari dagozkion xedeetarako.

2.- Ezin izango dira legeek babestutako eskubideak bortxatzen dituzten kautelazko neurriak hartu edo aplikatu.

31. Artikulua:

1.- Interesdunek beren xedeak atzera bota ahal izango dituzte prozeduraren edozein fasetan, eta formulatu duenak soilik ukatzen duenean izango du eragina.

2.- Atzera egitea Epailearen aurrean egingo da, idatziz zein ahoz, azken kasu honetan dagokion diligentziara harpidetuz.

3.- Atzera egitearen ondorioz, diziplinazko espedientea amaitu eta artxibatuko da, eskaera hori egin ez duten beste interesdun batzuk egon ezean, edo Epaileak interes orokorrenatik prozedurarekin jarraitzea erabakiko balu.

II. Kapituluak: Zigor prozedura orokorrari buruz

32. Artikulua:

1.- Kapitulu honek arautzen duenez, kirol zigor prozedura Epailetik hasiko da.

2.- Epailearen erabakiak, gutxienez, honako datu hauek jasoko ditu:

a) Espedientea irekitzeko gertakariei erreferentzia laburra eta horiek jazotako eguna.

b) Espedientea irekitzeko eguna.

c) Interesdunak edo ukitutakoak.

d) Dagokion kasuan, dagoeneko hartutako kautelazko neurriak.

e) Dagokion kasuan, Epailearen interesekoak diren frogabideak edo espedienteari lotutako dokumentuak, honek edo hirugarrenek eskatuta.

2.- Aipatu erabakia interesdunei jakinaraziko die Federazioko Idazkariak edo honek eskuordetutako pertsonak.

33. Artikulua:

1.- Epaileari aplikatuko zaizkio araudi honetan administrazio-prozedura orokorrarentzat aurreikusitako abstentzio eta ezespen kausak.

2.- Errefusatzeko eskubidea Epailearen aurrean gauzatu ahal izango da hiru egun naturalen epean, espedienteari hasiera eman zaiolako jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

3.- Epaileak Zuzenbidean bidezkoa dena erabakiko du bost egun naturalen epean, eta ematen den erabakia aurkatu ahal izango da, dagozkion errekursoak azalduz.

34. Artikulua:

Epaileak, salaketa jasotzean edo ustezko arau-hauste baten berri duenean, ezkutuko informazioa bideratzea erabaki ahal izango du espedienteari, edo dagokion kasuan espedientearen artxiboari, hasiera emango dion erabakia hartu baino lehen.

35. Artikulua:

1.- Behin espedientea irekita, eta ireki dela jakinarazi ondoren, eta dagokion kasuan kautelazko neurriak hartzeko aukerari kalterik egin gabe, Epaileak, jakinarazpena egin eta hamar egunetara, frogako faseari emango dio hasiera, gutxienez bost egun eta gehienez hogeitun eguneko epea izango duena, beharrezkoak diren proba diligentzia guztiak egiteko, horrela gertakariak argitzeko eta horietatik eratorritako erantzukizunak zehazteko.

Epaileari dagokio praktikatu beharreko proba diligentziak zehaztea, berak zein interesdunak eskatuta, aurreko paragrafoan adierazitako epean, eta interesdunei agindutako edo onartutako probak egiteko lekua, eguna eta ordua jakinaraziko zaie.

2.- Espedientea bideratzeko eta ebazteko gertakari garrantzitsuak zuzenbidean bidezkoak diren edozein bidetatik ziurtatu daitezke.

3.- Epaileak frogak egiteko onarpen edo ukapenari buruz egindako akordioen kontra ezin izango da errekurtsorik aurkeztu, baina interesdunak hala nahiko balu, bere eskaera errepikatu ahal izango du erabakia hartu aurretik entzunaldian, eta aipatu erabakiaren aurka egindako errekursoetan.

36. Artikulua:

1.- Egindako jarduerak ikusita, Epaileak, frogak epearen hurrengo hamar egunetan, kargu-orri bat egingo du, eta bertan jasoko dira egotzitako gertakariak, egindako frogen emaitza, eta espedientearen ebazpen-proposamena. Hori guztia interesdunei jakinaraziko zaie, jakinarazpena egin eta hurrengo hamar egun naturalen epean beren eskubideen eta interesen alde egokia deritzotena adierazi dezaten.

2.- Kargu-orriari eta ebazpen-proposamenari erantzunez, edo adierazitako epea interesdunek izapideak bideratu gabe igaro bada, Epaileak bere ebazpena emango du hamar eguneko epean.

3.- Erabakia eman baino lehen, Epaileak, hobeto erabakitzeko eta ebazpena emateko epea etenez, interesdunek une egokian proposatutako proba diligentziak egitea agindu ahal izango du, proposatu duenari egotzi ezin dakizkiokeen arrazoiengatik ez badira egin.

37. Artikulua:

Ebazpenak amaiera emango dio espedienteari, federazioaren apelazioaren baliabideari edo bigarren instantziari kalterik egin gabe.

III. Kapituluak: Ez ohizko edo presazko prozedura

38. Artikulua:

1.- Arau-haustea lehiaketa batean edo lehiaketaren ondorioz gertatu bada eta lehiaketak garapen egokia izan dezan, Epaileak berehalako erabakiak hartu beharko ditu; Epaileak erabaki dezake aldi berean gertatzea interesdunen alegazioak ahoz hartzea eta frogak hartzea; hauek artean, garrantzi handia izango du epailearen aktak, eta epailerik ez balego, lehiaketa ospatu den klubaren lehiaketa batzordearen txostena, lehiaketa batzordea edo federazioko delegatua, eta erabakia presazkoa izango da lehiaketa egoki burutu dadin edo jarraipena izan dezan.

2.- Diziplina Epaileak behin behineko etenak edo kautelazko beste edozein neurriak ere erabaki ditzake.

3.- Interesdunek beti bermatuta izango dute aurretik entzunak izatea, bai eta erabakiei errekurtsoa jartzeko eskubidea ere.

39. Artikulua:

1.- Arbitroek, epaileek edo jokoaren eta lehiaketaren arauen kontrola eman zaien pertsonak hartutako erabakien aurkako erreklamazioak arau-hausleak, edo bere klubeko ordezkariak edo delegatuak dagokion akta jaso eta hurrengo berrogeita zortzi orduetan egingo dira. Alegazio-idazkiak praktikatu nahi duen proba proposatuko du.

2.- Diziplina Epaileak aurka-egitea edo erreklamazioa bost eguneko epean erabakiko du, aurreko epea amaitu denetik kontaktzen hasita. Aipatu epea luzatu ahal izango da, baldin eta proba egiteko proposamena onartu eta hurrengo bost egunetan proba hori ezin badaiteke egin.

IV. Kapituluua: Jakinarazpen eta Errekurtsoak

40. Artikulua:

1.- Zigor prozeduretan epaileek hartutako erabakiek motibatuak izan behar dute eta interesatuei jakinarazi behar zaizkie, adieraziz erabakiaren edukia eta jarri daitezkeen errekurtsoak, hartu eta gehienez hamar egunen buruan, eta bost egunen buruan prozedura berezia bada.

2.- Jakinarazpena interesatuen etxean edo egoitza sozialean egingo da, gutun ziurtatuaren, telegramaren edo jaso duela ziurtatzen duen beste edozein bideren bitartez.

3.- Erabakiaren garrantziak edo oihartzunak hala eskatzen badu, Epaileak edo erakunde edo bazkide elkarte edo federatiboak erabaki dezake jendaurrean zabaltzea, betiere pertsonen ohorea eta intimitatea bermatuz, legediak eskatu bezala.

41. Artikulua:

1.- Araudi honetan edo estatutu edo bestelakoetan ez bada espresuki erreklamazioa edo errekurtsoa aurkezteko epe bat zehazten, interesdunek hamar egunen barruan aurkeztu ahal izango dituzte errekurtso horiek.

2.- Aurreko zenbakietakoa kontuan hartuta eta araudi honetan edo estatutu edo bestelakoetan ez bada espresuki eperik zehazten, aurkeztu eta hogeita hamar egunen buruan errekurtsoak atzera bota direla ulertuko da, nahiz eta Epailea behartuta egon erabaki bat hartzera.

3.- Aurreko zenbakian aipatutako epeak honela hasiko dira kontatzen: lehena, jakinarazpenaren biharamunetik hasita, erabakiaren aurkako errekurtso gisa; eta bigarrena, artikulua honen arabera errekurtsoak ez onartuak izan direla ulertzen den biharamunetik hasita.

42. Artikulua:

Arabako Txirrindularitza Federazioko Diziplina Epaileak lehen auzialdian hartutako diziplinako ebazpenak aurkatu ahal izango dira Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Apelazio-Batzordearen aurrean.

43. Artikulua:

1.- Erreklamazio edo errekurtsoak beti idatziz gauzatu eta aurkeztuko dira, Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren egoitzan, Apelazio-Batzordeari zuzenduta, edo bestela administrazio prozedura orokorraren arauetan zehaztuko den lekuetan

2.- Erreklamazioak edo errekurtsoak gauzatuko diren idazkietan, honakoak jarri behar dira:

- a) Erreklamazioa edo errekurtsua egiten duenaren eta gaian interesdunak direnen datuak, legitimazioa justifikatua dutela adieraziz, aktiboa nahiz pasiboa.
- b) Errekurtsua zein ekintza, akordio edo erabakiren aurka jarri den zehaztu, azken bien kasuan kopia batez lagunduta zehatzak izan badira.
- c) Erreklamazioa edo errekurtsua eragiten duten alegazioen azalpena, eta zein arautan oinarritzen diren haiek.
- d) Zeintzuk diren praktikan jartzeko eskatzen diren probak.
- e) Eta asmoak zehazki azaltzea.

44. Artikulua:

Errekurtsua aurkezteak ez du helegitea aurkeztu deneko epaiaren betetzea etengo, Apelazio-Batzordeak hala adosten ez badu, ofizioz zein interesdunak eskatuta.

45. Artikulua:

Euskadiko Txirrindularitza Federazioko Apelazio-Batzordeak emandako akordioek eta ebazpenek federazio bidea amaitzen dute eta aurkatu ahal izango dira Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean.

2.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak emandako akordioek eta ebazpenek administrazio bidea amaitzen dute, eta aurkatu ahal izango dira Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, arau jurisdikzional aplikagarrien arabera.

46. Artikulua:

Arabako Txirrindularitza Federazioak ezarritako zigorren liburu edo erregistro bat izango du, honako xedearekin: ezarritako zigor bat badagoen hauteman, noiz gertatu zen; preskripzioaren epea; kausa aldarazlea eta berriro hartua izateko eskubidea erabiltzea.

47. Artikulua:

Osagarri gisa aplikatuko da EAEko Kirol Legean eta kirol diziplina arautzen duten Araudi publikoetan, eta, dagokionean, Arabako Txirrindularitza Federazioko Estatutuetan xedatutakoa, eta baita administrazio prozedura arruntaren arauetan xedatutakoa ere.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko otsailaren 8an